

afarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua  
HEO-etako Maila Aurreratuko Proba Bateratua

-----  
Gobierno de Navarra  
Departamento de Educación  
Prueba Unificada de Nivel Avanzado de EE OO II

## EUSKARA

### MAILA AURRERATUA

#### Azterketa eredia

## ERANTZUN ZUZENAK

### ENTZUMENA (15 puntu)

#### 1. ENTZUNGAIA (5 p.)

0	1	2	3	4	5
A	E	D	K	I	J

#### 2. ENTZUNGAIA (5 p.)

0	6	7	8	9	10
B	B	A	B	C	A

#### 3. ENTZUNGAIA (5 p.)

0	11	12	13	14	15
C	B	B	A	C	B

### IRAKURMENA (15 puntu)

#### 1. ARIKETA (5 p.)

0	1	2	3	4	5
A	H	C	D	F	B

#### 2. ARIKETA (5 p.)

0	6	7	8	9	10
B	B	B	A	A	A

#### 3. ARIKETA (5 p.)

0	11	12	13	14	15
A	E	F	G	D	H

## **MAILA AURRERATUA. AZTERKETA EREDUA. ENTZUMENA.**

### **1. ARIKETA: Euskadi Irratitik grabatutako bost informazio zati. (6')**

#### **ADIBIDEA**

Kazetaria: Xabi Larrazabal, kaixo egun on!

Xabi: Egun on!

Kazetaria: Xabi, unibertsitatean izan zara ikasle nagusiagorekin esan dezagun...

Xabi: Bai apur bat bai.

Kazetaria: Baina egon zara baita ere hurrekin eta, kontu hauek guztiak kontatzeko.

Xabi: Hori da. Hor Abusun aste gutxi daramatza martxan, han Abusun bertan Bidelagun Programak eta esango dugu, zer da Bidelagun Programa? Ba aipatu dugun moduan, umeak gurasoak etxean utzi eta eskolara euren kabuz joateko bidea errazten duen ideia da. Zamakola Juan del Mas Abusuko eskola publikoko umeei dago zuzendua eta egia esan nahiko irudi ezohikoa sortzen duen ekimena da, Bilbo moduko iri handietan gutxitan ikusten baitira 8-9 urteko umeak kaletik eskolarantz bakarrik. Auzo seguru baten seinale umeak kaletik baina horrez gain umeak apurka-apurka lasai asko ibiltzea loturak hausten joan daitezen be lortu gura dute.

Kazetaria: Nagusitzeak dakartzan kontuak dira horiek.

Xabi: Bai, pixkanaka koxkortzen ari diren seinale, ezta?

#### **BAT**

Kazetaria: Xabier Larrazabal, Xabi kontaiguzu.

Xabi: Egun on, Manu! Bai, ze hilerri eta gurutze artean kikiltzen denak ziur ez duela gustuko izango belarrietan kaskoak jarri eta hilerriko txoko ezberdinak bere kabuz ezagutzea. Eta hain zuzen hiru da Bilboko hilerrian pasa den astetik aurrera egin daitekeena, audio-gida baten konpainian Bizkaiko kanposantu handiena barrenetik ezagutu. Modu finkoan ezarri berri den zerbitzua da hau, munduko beste hiri batzuetan egiten den zerbait ere. Sistema hau hemen ezartzen den lehenengo aldia da.

Kazetaria: Esan beharra dago Xabi Bilboko hilerria dela baina Derion dagoela kokatuta ezta?

Xabi: Hori da, Derion dago kokatua, esan izugarri handia dela, barruan erraz galtzeko modukoa, 200 mila metro karratuko hedadura du eta kalkulatzen da 400 mila pertsona inguru daudela bertan hilobiratuta. Ba hau dena bisitatu daiteke orain, gida eta guzti.

Beraz, hilerriek ere artistikoki zein kulturalki asko esan dezakete ikusten dugun moduan...

#### **BI**

Pena ematen dit nire herriko liburu dendako erakusleihoak. Duela urte eta erdi arte diskoz betetako erakusleho osoa topatzen zenuen, diskoen azalak topatu eta ikusi egiten zenituen, taberna eta taberna arteko ibilbidea egiten ari zinela. Euskal musikan sortzen ziren kasik disko berri guztiak erakusleihora eramateko lanak hartzen zituen, berdin zion zein diskoetxek ekoizitakoa zen. Eta hori gutxi balitz herriko artisten lanak leku preferentean jartzeko ohitura txobinista zuen.

Gaur, euskaraz dagoen disko hori beti da diskoetxe berdinarena, artista berdinarena eta estilo bertsukoa. Ezta nostalgia, haserrea baizik nire herrian ez baitago musika erakusten duen beste erakusleiorik. Eta aldaketa oso bortitza gertatzen ari zait, ziurrenik oraindik musika axola digun ero horietako bat naizelako.

## **HIRU**

Kazetaria: Ainara Ortiz, Ainara, egun on!

Ainara: Kaixo, egun on! Ezta erraza izaten guretzat heriori aurrez aurre begiratzea, mendebaldeko gizarte garaikidean gainera tabu bihurtu dugu heriotza, adituek ohartarazi digutenez.

Gure aitona-amonon garaian gertakizun naturalizat hartzen zena gaur egun ukatu eta saihestu egiten dugu zientzia eta teknologien aurrerapenak abantaila eman digu bizitzaren partidan baina ez dugu onartu nahi herioak egiten digula beti xake matea. Eta behin gertatu beharrekoa gertatzen denean lehenbailehen ahaztu eta gure burutik desagerrarazi nahi izaten dugu gorputzak eta arimak eskatzen diguten prozesua azaleratu gabe, ito egiten dugu. Baina gure sufrimenduaren mapak badu memoria eta bere garaian doluaren zauria ondo itxi ezean gaixo emozionalak izan gaitezke bizitza osoan zehar. Nafarroako Senda Fundazioko terapeutek ondo ezagutzen dute heriotzak berekin dakarren dolu prozesua eta hori behar bezala kudeatzeko doako laguntza eskaintzen diote eurengana jotzen duen orori. Aste honetan zehar doluari buruzko 4garren jarduera-zikloa antolatu dute Iruñean.

## **LAU**

Kazetaria: Fakun, kaixo, eguerdi on! Zer irudi duzu aurrez aurre?

Fakun: Aupa!, egun on denoi! Bai, Guggenheim museoaren ataritik beno, gutxi gora-behera 50 familia bildu gara gaur eta edoskitze naturalaren aldeko Europako Astea eta bularra ematearen garrantzia eta onurak azpimarratzeko eta gogoratzeko, ba bildu gara hemen eguzkitan, poz-pozik ume guztiak jolasean lurrean eta bueno argazki oso polita atera dezakegu hemendik.

Kazetaria: Jendea begira geratzen al da? Zenbat ama daude? Esaiguzu.

Fakun: Bai 50 gutxi gora-behera, 50 ama, seme-aita, ama eta familia osoak esango genuke, bueno jendea bai, harridurarekin baina bueno argazkiak, argazkiak ateratzen jendea eta oso esperientzia polita. Batez ere elkarren artean ezagutzeko eta konfiantza emateko, ze asko, oso garrantzitsua da konfiantza elkarrengan transmititzea.

Kazetaria: Ba, oraintxe, hortxe Guggenheim museoaren atarian 50 ama daude titia ematen haurri, titia, bularra ematen, Fakun eskerrik asko.

## **BOST**

- Erosle batek bidali digun adibidea: Postontzitik hartu dudana ohar batean esaten zait sari bat irabazi dudala, fida naiteke?

- Kontu handia izan behar da horrelako jakinarazpenekin. Izan ere, hitzaldi komertzial batera joatera behartzen dute gehienetan eta hitzaldi horietan erosketa bat egitera edo diru kopuru bat uztera behartzen dute jendea. Oso modu oldarkorren. Adibidez, oportetarako apartamentu bat txandaka erabiltzeko aukera izateko, hitzaldi horien helburua da kontratu bat sinatu gabe zu handik ez joatea.

**2. ARIKETA: Bernardo Atxagari egindako elkarrizketatik hartutako zatia.  
(5'55'')**

Manu Etxezortu: AEBetik orain hilabete batzuk itzuli berria eta gainera mitin batzuetan egona denez, nahitanahiez galdetu behar genion B. Atxagari hauteskundeei buruz, baina beste kontu bati buruz hitz egin nahi dugu gutxienez, bere nobela berriaz. Ainara Zuzabeitia, egun on.

Ainara: Kaixo, egun on. "7 etxe Frantzian". Hori izango da B. Atxagaren eleberri berria, atzo bertan bukatu zuena gainera. Orain arte prosan idatzitakoarekin ez duela antzekotasunik esan izan du, eta Obabatik urrun dagoela istorio hau. Afrikako Kongon, hain zuzen ere, Leopoldo II.a Belgikako Erregearen garai beltzean. Udaberrian argitaratuko du euskaraz, gazteleraz, galegoz eta katalanez. Nevadan, Renon aurkitu du eleberri hau idazteko lasaitasuna, eta azken urte honetan esatekoa bi sari ere irabazi dituela, zein baino zein garrantzitsuagoa. Hitz egingo dugu honi buruz ere.

Manu: Bai, nobela ia bukatuta dago, Bernardo.

Atxaga: Bai, bukatuta dago. Ba... badakizu...e... nik uste dut... lehen ez nuen hala pentsatzen, baina uste dut sortzea asko dela zuzentzea. Ez dut nik asmatu esaldi hau, baina egia da. Eta orain egia da, azken puntua jarri diot. Badakit nola bukatzen den eta dena, baina orain hasi behar dut zuzenketarekin, eta batez ere borragomarekin, ez? Beti irudipena da zenbat eta gehiago kendu hasierako testuari, hobeto gelditzen dela, eta espero dut borragoma horrekin erabat-erabat ez ezabatzea, ez? eta batere gabe gelditzea.

Manu: Bai, XX. mendearen hasieran kokatu duzu istorioa, Kongon hain justu. Kongo Belgikako Leopoldo II. Erregearen jabetza pribatua zen garaian, liburuak kontatzen duena, gogorra dela esan duzu, baina tonuan umorea ere badagoela.

Ainara: Sari asko eta inportanteak jasotako idazlea ere bazara, 20 saritik gora gutxienez bai. Tartean narratiba sari nazionala jaso zenuen orain ia 20 urte, eta aipatutako hori, urte honetan beste bi sari ere bai ...Cavour saria, atzerriko narratiba onenaren sailean eta berdin Italian. Mondello saria ere bai, maiatzean jaso zenuen « Soinujolearen semea »rengatik.

Manu: Adibidez, Mondello sariak zer garrantzi dauka ?

Atxaga: Ba, Italian da, segurasko, serioena, ez? e... ezin du inork libururik aurkeztu, ezin du editorial batek... editorial batek... argitaletxe batek ez daki liburu hori sarian dagoenik. E... 12 epaile dira, Italia guztikoak, eta gehienak dira literatura konparatuan espezialistak, eta, orduan, sari garrantzitsua da, sari aski garbia delako, ez da inola ere, ba, aldeztetik emana dagoena, edo zer esango dizut nik...

Ainara: Argitaletxeek ez dute parte hartzen?

Atxaga : Ez, ezin du... argitaletxeak ezin du libururik aurkeztu. Aukeratu ditu liburuak, aukeratzen ditu epaimahaiko jende honek eta haiek gero, ba, erabakitzen dute.

Nik, egia esan, ez nuen inola ere, ...ez nekien hor tartean nintzenik ere, eta pasadizo bat kontatzea nahi baldin baduzu, Mondello sariaren albistea etorri zenean nire ordenadorera, ba, nire ordenadoreak automatikoki sartu zuen zaborrontzian.

Ainara : Birusa zuen ?

Atxaga : Ez, ez zuen birusa, baina ez zuen ondo interpretatu. Iruditu zitzaion bazela propaganda hutsa edo eta... nik badaezpada ere, beti begiratu egiten dut eta harritu nintzen. Mondello saria, premio Mondello... bueno, ba, hartu nuen..., bueno, ondo.

Manu : Bueno, lehen aipatu dugu Renon egin duzun urtebeteko egonaldi hori. Zer moduzko esperientzia izan da? Tarteka distantzia hartzea beharrezkoa da, Euskal Herriatik distantzia hartzea?

Atxaga : Nik uste dut beti distantzia baino gehiago da zuk bilatu behar duzu pixka bat zeure burua, ez? e... non zauden zu zeu, zer ari zaren pentsatzen, zer ari zaren sentitzen eta askotan, ba, hori... Leguineche, lehengoan Euskadi saria irabazi zuena, Leguinechek badu liburu bat izena du « Bidaiarik laburrena », eta bidaiarik laburrena da munduari bira ematea, eta munduari bira eman gabe, ba, nik uste tarte bat eta distantzia bat hartzen duzunean, eta batez ere zuretzako leku arrotza den batera joaten zarenean, ba, orduan, ez dakit, ba, ez dut esaten zeure burua aurkitzen duzunik, baina hobeto hitz egiten duzu zeure buruarekin.

Manu : Bueno, beraz udaberrian izango da kalean nobela berri hori, « 7 etxe Frantzian » izenekoa; esan dugu lehen aterako dela euskaraz, katalunieraz, galegoz eta gazteleraz, ezta Bernardo?

Atxaga : Bai, idea hori sortu zen, ba, han Renon nengoela, etorri zitzaigun batzar batera Chicagoko irakasle bat. Bera kanarietakoa zen eta han zegoen, ba, Espainiako literatura ematen zuen, eta bere hitzaldian aipatu zuen, ba, bai « Soinujolearen semea » orduan eta gero « Obabakoak » orain, ba, bi liburu horiek, nolabait esan, fikzioan edo fikziozkoak izanda, bakarrik zirela Estaduko lau hizkuntzetan, ez zegoela beste libururik, nonbait, lau hizkuntza horietan, eta orduantxe bertan jaso nuen nik (barkatu katarro hori) bai, orduantxe bertan hartu nuen nik idea, eta pentsatu dut, ba, liburua ateratzea. Hitz egin genuen argitaletxekoekin eta bai, hortxe ari gara prestatzen lau argitalpenak batera, euskaraz, lehentxeago aterako dut, hala ere.

Manu : Pixka bat lehenago

Atxaga : Bai, sinboloak beti ere bere garrantzia izaten du, eta nahi dut lehentxeago ateratzea, bai.

### 3. ARIKETA: AIZKOLARITZA (3'13'')

Pasa den igandean Amurrion Euskal Herriko aizkolarari txapelketa jokatu zen, Floren Nazabalek 4. aldiz txapela jantzi zuen eta guk aizkolaritzan aurrera begiratu eta kirol honek duen etorkizuna pittin bat argitu nahi dugu.

Horretarako lehenbizi gure aditua agurtu behar dugu. Andrés Osa Sakona gabon, zuk aurrera begiratu aizkolaritzan eta zer ikusten duzu?

Bueno ahaleginak egiten ari direla eta gazte batzuk, ba, badutela bidea markatzeko gogoia, behintzat beno etorkizun pittin bat ematen du zerbait ikusten dela bakar batzuen artean, baina ez, ez da, lorategia nik uste dut nahiko ximurtuta dagoela eta hala jarraituko duela zati batean, behintzat bitarteko batzuk ez baldin badira ipintzen.

Hala ere, Andrés, hor urte batzuetan atzetik inor ez zegoela edo inor ez zetorrela ikusten zen, batzuk somatu dira gazte batzuk ere badatoz, hala ere, nik uste gazte horiei elitera iristera edo orain arteko aizkolarari handiek eman duten maila ematea ia ezinezkoa egingo zaiela, ez?

Oso zaila eta behintzat, bueno, alde batetik gaur egun ba ofizio hori ez dala ofizioa dela ba ofizioaren ordezkari dala ba debozioa. Hau da, aizkora erabili ordezkari bezala basagizonak edo motozerra erabiltzen dutela. Eta orduan, ba, jakina, bizitza ateratzeko aizkolaririk ez da behar.

Hori alde batetik, eta eta gero ba, jakina, lehen aizkora, ba, bertara, eskuetara erabiltzen zen, eskuetara behar zen, bizitza ateratzeko, ogibidea bezala eta orain berriz, ba, jakina, bertara joan behar egin behar da eta, jakina, horrek galdera asko sortzen ditu.

Juan Manuel Erasun, gabon. Zuk zer etorkizun ikusten diozu gure aizkolaritza maiteari?

Bueno, bada, zoritxarrez, pentsatzen dut ez onegia, ezta? nik pentsatzen det, ba, azken urteetan pixkanaka pixkanaka behera dijoala eta nire ikuspuntutik oso normala da, ez? orain arte edo orain dala oso urte gutxi arte, ba, nekazaritza munduan bai baserrian, ba, sega bezala edo aizkolaritza bai mendian ba ogibide izan dana, hori galtzen ari da eta hori galtzen ari den heinean, ba, herri kirolak hain oinarrizko eskola edo biberu hori galtzen ari da eta orduan, ba, horren barruan jokatzeko dena.

Hala ere, beste kirol batzuetan ere lehendabizi ogi-bide izan dena desagertu egin da eta esate baterako, arraunari begira ari naiz eta lortu dute beraiek lehen ogibi zena gaur hori elite-eliteko kirol batera bihurtzea. Bai, hor garbi ikusten dana da antolakuntza bat prestatu dela, ez? federazioek eta bai hor klubetako ordezkariak antolatu dute eta, orduan, ba, nik uste dut herri kirolean ere zerbait antzekoa behar dela. Nik instituzio ezberdinetatik ikusten du hutsune handi bat, lehen esaten nuen bezala baserrietatik lehen oinarrizko eskola izan zen bezala hori amaitu da, horrek ez du bueltarik, hori ordezkatu behar da eta hori ordezkatzeko ez den bitartean eta txapelketa edo konpetizio ezberdinak antolatzen ez diren bitartean oso zaila da eta gaur egun herri-kirol munduan ikusten da ez dagoela.

Euskadi Irratia, EITB